

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4449

EBAZPENA, 2023ko irailaren 18koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen 2023ko deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 3ko Ebazpenaren (EHAA 87. zb, maiatzaren 10ekoa) bidez, 2023. urterako dirulaguntzen deialdia egiten baita, memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea laguntzak, eranskin horretan zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (EBAO, L 352. zk., 2013-12-24koa).

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2022ko irailaren 18a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2023ko irailaren 27a, asteazkena

I. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
001	Jesús Pablo Chueca Inchusta	Liburua: «1936-1939ko erbesteko mitoak = Los mitos del exilio de 1936-1939».	Atzera egin duela ulertzen da, eskatutako dokumentazio zuzentzailea ez aurkezteagatik (deialdiaren 12. artikulua).
007	Ikeder, S.L.	Dokumentala: «Micro-Documentales con testimonios reales de la guerra»	Atzera egin duela ulertzen da, eskatutako dokumentazio zuzentzaile guztia ez aurkezteagatik (deialdiaren 12. artikulua).
013	Se Habla Producciones, S.L.	Soinu-dokumentala: «Se llamaba como yo. Una serie de audio documental»	Ez du betetzen deialdiaren 3. artikulua. Soinu-dokumentalak edo podcast-ak ez dira diruz laguntzeko moduko jarduerak.

2023ko irailaren 27a, asteazkena

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza
002	Francisco Javier de la Colina Aranceta	Liburua: «Viento fuerte del Norte»	3.900,00 €
003	Juan Ignacio Rodríguez Camarero	Liburua: «Concejo de Ortuella 1930-1940. República, Guerra civil y Primer franquismo».	3.950,00 €
004	José Ramón de la Mar Iturraspe	Liburua: «El olvido de Ramón de la Mar Urrutia (1880-1960)»	1.365,00 €
005	Sabino Arana Fundazioa	Liburua: «Emakumeak Aberria eginez».	4.000,00 €
006	Área Proyectos Audiovisuales y Culturales, S.L.	Dokumentala: «Muerte en Amara»	10.950,00 €
008	Mirokutana, Koop. Elk. Txikia	Dokumentala: «indarkeriaren Oi(hartzuna)»	14.250,00 €
009	Erein, S.A.	Liburua: «Irunberri 1990: arrolaren negarra»	5.000,00 €
010	Honmik Hondarribiko Memoria eta Ikerketa Elkartea	Dokumentala: «Jesus Carrera Olaskoagaren inguruko dokumentala»	14.263,00 €
011	Intxorta 1937 Kultur Elkartea	Liburua: «Angiozarko 1936: Gerrateko kontuak»	3.662,00 €
012	Vicente Goiznabar Monclus	Dokumentala: «Maria, erizain burua».	4.794,00 €
Guztira			66.134,00 €